

tatzen da batzutan, Haren tasun gisa, erabiliaren erabiliaz.

2. Sin.: Gorespena. Jainkoaren handitasuna aitortuz, ematen zaion alabantza eta laudorioa. Otoitz askotan agertzen da hitz hori.

### Aintza aitari

Kristautasunean doxologi otoitz oso ezagun baten lehen hitzak eta izena. Oso erabilia da otoitz hori kristauen artean, beraren laburrean.

Ik. Hirutasun txit santua; Aintza.

### Aita

Aitaren sinboloa oso ezaguna bihurtu da erlijioaren psikologian eta fenomenologian, S. Freud-ek \*Edipo-konplexua erlijioaren jatorrian jarri zuenetik eta horrela Jainkoaren irudi behinena aitaren irudiaren \*projekzio eta \*sublimazio-prozesuaren ondorioztat hartu zuenetik.

Aita larderiadun eta gogorraren irudia egotzen dio Freud-ek Jainkoari, eta horren erlijioa lege- eta arau-multzoa da, gizakiak bere baitaratua eta bere libidoa hertsatzen diona. Haren ustez, ez dago maitasunezko grazi erlijiorik; denak dira ezarpenezko lege-erlijio.

Teoria guzti hori Itun Zaharreko erlijioari egotzi ezezik, Moiseren eta Israel Herriaren harremanean ikusi uste zuten zuzenki bere azalpenaren argigarria: Moise lege-gilea, buruzagia, Jainkoaren ordezkaria, ia jainko bihurtua, beraren heriotzaren ondoren. Hortik zabaldu zuen bere teoria erlijio guztien jatorria azaltzeko. Espiazio-oguztarian, \*irritsak edo grinak zapaltzen dituen legean ikusten du Freud-ek aitaren irudia.

Erlijioaren adierazpen psikoanalitiko hori aparte, erlijioetan agerpide nagusietakoa den \*otoitzean nabari da aita-umeen arteko harremana. Honela dio F. Heiler teologo eta erlijioen histori irakasleak: "Otoitzean ari den gizakiak Jainkoarekiko duen harremana --umeak aitarekiko duen harremana, alegia-- erlijiozko fenomeno behinena da".

Gizabanakoaren eta Jainkoaren arteko umea/aita harremana baino lehenago gizataldearen eta Jainkoaren umea/aita harremana agertzen da, eta sarritan lehena bigarrenaren barruan ikusi ohi da. Israel Herria da Itun Zaharrean Jainkoaren ume, inori (erregeri edo bestelako lagun banakori) titulu hori egotzi baino lehen.

Jainkoaren aitasunak adiera fisikoa du aurrenik, erregea edo beste gizaki jakin batzu bereziki Jainkoaren beraren semetzat hartzen direnean.

Itun Berria "Jainko Aitaren Ebanjelioztat" hartu izan da, eta \*kristautasuna, jainkozko umetzaren erlijioztat: \*maitasunaren erlijioztat, alegia, morroi-beldurrezko erlijioaren kontra. Kristau-otoitzik ezagunena, Ebanjelioan bertan irakatsia, \*Gure Aita da.

Ik. Aita Jaungoikoa.

Paulo Agirrebaltzategi

### Aita izpiritual

Ik. Arimako zuzendaria.

### Aita Jaungoikoa

Kristau-irakasbidean, Hirutasun txit santuan jainkozko lehen pertsona, Jainko Semearekin eta Jainko Izpiritu Santuarekin batera. Jainko Aita ere esaten da.

Ik. Hirutasun txit santua; Aita.

### Aita santua

Eliza Katolikoko buru gorenari ematen zaion izena. "Aita santua" agur-titulua izatetik, benetako izen arrunta izatera igaro da euskaraz. Bere tituluen artean ditu: Pontifize gorena edo \*apaiz nagusia, Erromako apezpikua, Kristoren ordekoa lurrean, San Pedroren ondorengoa, Eliza osoaren burua, mendebaldeko patriarka. Dokumentu nagusietan, "Jainkoaren morroien morroia" deitu ohi du sarritan bere burua aita santuak.

San Pedro izan zen Erromako lehen \*apezpikua, tradizioak dioenez. Horregatik haren ondorengo gisa, \*apezpiku-kolegioaren buru den aita santuaren \*diozesia Erroma da tradizioz. Apezpiku guztien artean lehentasuna aitortzen diote katolikoek: ez ohorezkoa bakarrik eta bai jurisdikziozkoa ere.

Ekialdeko eta mendebaldeko Elizen arteko banantzearen edo \*ekialdeko zisma deritzanaren jatorrian lehentasun horren ulerpena zegoen, hain zuzen: Eliza Ortodoxoek Erromako apezpikuari ohorezko lehentasuna ezagutzen diote, baina ez jurisdikziozkoa.

Aita santuaren eskumen erlijiozko eta politiko-zibilaren taxuerak gorabehera handiak izan ditu historian zehar. S. Pedroren ondorengo apezpikua izateaz gain, inperioko hiribirukoa izateak eragin handi eduki zuen haren izena, sona eta agintea goratzeko.

Iparraldeko herri "barbaroen" eskuetan inperioaren mendebaldea erori zenean, berriaz, \*aitasantutzak garrantzi handiagoa irabazi zuen, eta Erdi Aroan Elizaren buru izpiritual ezezik, \*kristandadearen gidari politiko ere bera bihurtu zen, erregeen eta jaun feudalen artean benetako botere politikoa egikaritzuz. Botere politiko zabal horren

## Aitalehena

alde jokatu zuen, baita ere, 754ean Italiako lurralde handi bateko jaun bihurtzean, Pipino Laburrak egindako dohaintza baten ondorioz. Aita santuaren estatu horiek 1870 arte iraun zuten, Italiako estatua sortu zen arte, Erroma hiriburu zuela.

Italiar estatuaren eta aitasantutzaren artean sortutako gatazka 1929an konpondu zen, Mussolini-rekin izenpeturiko \*konkordatuaren bidez. Ordutik honera, Vatikanoko estatu txikitxoaren buru da aita santua, eta bere enbaxadoreak edo ordezkari diplomatikoak ditu munduko estatu gehienetan: \*Nuntzioak, etab.

Ekialdeko zismaren eta XVI. mendeko \*Erreforma protestantearen ondoren, \*kristandadearen parte handi bat galdu zuen aita santuak. Eta horrekin batera, haren aginte eta itzal politikoak behera etorri ziren, Europako estatu modernoak eratu eta indartu ziren neurrian. Horren kontrako erreakzioa izan zen XIX. eta XX. mendeetako elizaren lehenerapena (irakasbidean eta ihardunbidean edo araubidean gertatua). Horren ondorioa, berriz, Erromaren inguruko zentralismo ikaragarria eta aita santuaren gehiegizko goratzea izan zen katolikoan artean. Giro horretan aldarrikatu zuen Vatikanoko I. Kontzilioak (1870ean) aita santuaren \*hutsezinaren edo infalibilitatearen dogma.

Kontzilio berak irakatsi zuen aita santuaren lekua eta egitekoa, Elizaren egiturari: Horren buru ikuskorra --ikustezina Kristo bera da--, aita, irakasle, artzain eta agintari gorena da bera. Eliza eraentzeko Vatikanoko kongregazio, idazkaritza eta batzordeetaz baliatzen da bereziki: Erromako Kuria osotzen dute guztiak.

Berak hautatzen ditu mundu osoko apezpikuak eta izendatzen ere. Bere irakaslegoa arruntki \*entziklikoen bidez betetzen du gehienbat.

Kardinaleez hautatzen dute aita santua, \*konklabea izeneko batzarrean; orain 80 urtetik gorako \*kardinaleez kendu egin zaie eskubide hori. Tradizioz biziartekotzat jo izan da aitasantua; bada, ordea, dimisiorik eman duenik historian zehar eta Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoan ere aski zabaldu zen Paulo VI.ak 75 urte betetzean utziko zuen ustea. Baina ez zen horrelakorik gertatu.

Gaur egun aita santuaren \*hutsezinaren dogma eta horren ministeritza "monarkikoa" dira kristau-Eliza handien arteko batasun bidean oztoporik handienetakoak.

Vatikanoko II. Kontzilioak neurri berri-tara ekarri nahi izan zuen aitasantutzaren kargua eta ministeritza Elizaren barruan.

Horren Elizako burutza eta jurisdikziozko lehentasuna ukatu gabe, \*apezpiku-kolegioak eta \*kontzilioak Elizaren egiturari duten garrantzia nabarmendu zuen, eta Elizaren erakuntzako kolegialtasun-printzipioa ozenki berretsi. Alde horretatik, kontzilioak garrantzi handiagoa hartzen du, hortxe egikaritzen bait da nabarmenen apezpiku guztien \*kolegialtasuna. Azken Kontzilioaren ondoren \*apezpiku-sinodo orokorraren erakundea sortu zuen, apezpiku guztiak Eliza osoaren eraiketari duten erantzukizunaren agerigarri eta gauzatzeko bidetzat.

Zaila da historian zehar izan diren aita santuen zerrenda eta segida zehatza ematea, garai ilunak daudelako eta batzutan erizpide historiko erabakiorrik ez dagoelako, aita santua eta anti-aitasantua bereizteko.

Ik. Hierarkia; Eliza Katolikoa; Katolizismoa.

Paulo Agirrebaltzategi

## Aitalehena

Sin.: Patriarka

Israelgo hamar tribuen sorburuko arbasoen deitura, Adanengandik hasi eta Jakob-enganaino.

Ik. Patriarka, 1.

## Aitama pontekoak

Sin.: Aitamabitxiak; Aitama besoetakoak

Bataiokoa lekukoena egiten duten bi lagunak dira --gizonezkoa eta emakumezkoa--, bataiaberriaren kristau-hezierari buruz gurasoekin batera erantzukizun berezia beren gain hartzen dutenak; egiteko apartekoa dute horiek haurraren bataiokoa batez ere, haren ordeze egiten bait dute \*bekatuaren ukoa eta kristau-fedea aitortzen.

Ik. Bataioa; Fede-aitormena.

## Aitaren egitea

Nork bere gorputzaren gainean \*gurutze handi bat egitea, bekokitik bularrera eta sorbalda batetik bestera, \*Hirutasan txit santuari dei eginez. Mendebaldeko Elizan ezkerretik eskuinetara egiten da gurutzea; ekialdetarrean, berriz, eskuinetik ezkerretara.

## Aitasantutza

Aita santuaren ministeritza eta kargua, eta horren ingurunean historian zehar definituz joan den erakundea.

Ik. Aita santua.